



POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAN LANGILE ETORRI BERRIEI HARRERA LINGUISTIKOĀ EGITEKO PROTOKOLOĀ.

*Hizkuntza Ofizialen Erabileraren
kudeaketaren ikuspegitik.*

2019ko urtarrila



SARRERA

*Jakina da Administrazio Orokorrean datozen 5-10 urteotan langile berri askoren etorrera aurreikusten dela (Rakeli eskatuta 2022ra bitartean zenbat erretiratu gutxi gorabehera); aurreikusten da, baita ere, **langile berri horiek elebidunak izango direla, prestatuta egongo direla hizkuntza ofizial bietan lan egiteko**. Etorrera hori aukera paregabea izan daiteke indartzeko azkeneko hamarkadan sustatzen ari garen euskararen erabilera, batez ere lan-hizkuntzaren eremuan aurrerapauso sendoagoak eman ditzagun. Hartara oinarriak jarri beharoko genituzke pertsona horiek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian lanean hastearekin batera aukera izan dezaten euskaraz lan egiteko.*

Langile hasiberrien joera naturala izango da dagoen egoera linguistikora lerratzea; horiek horrela, ikasitako erabiltzeko aukerarik ez badute, denbora laburrean galdu dezakete euskarazko gaitasuna. Gizarteak eta erakundeek ahalegin handia egin dute belaunaldi hori euskalduntzeko, eta ezin dugu indargune hori alferrik galtzen utzi. Hartara, oinarriak jarri beharoko genituzke pertsona horiek PLEAn lanean hastearekin batera aukera izan dezaten euskaraz ere lan egiteko.

Langile etorri berriei harrera egitea, eta harrera horretan hizkuntza ofizialen kudeaketaren berri ematea, edo hori integratzea, erakundearen kudeaketa orokorraren sistemaren barruan sar daiteke. Azken batean, kudeaketa orokorraren zati da, berez, heldu berria den langileari informazioa ematea; informazio orokorra, batetik, eta hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideei buruzkoa ere bai, bestetik. Prozedura honen helburua, PLEAra lanera datozen langile berrien harrera sistematizatzea da, ahalik eta eperik laburrenean ezagutu dezaten erakundearen antolaketa, lan-ingurunea, lan-kultura eta hizkuntza ofizialen kudeaketa, erakundearen lanean eroso eta hainbat arinen txertatu daitezten. Protokolo honetan aurreikusitako urratsak harreraren euskaraz inkorporatzeari begira daude eginda.

Eldozelan ere, hemen aipatzen ditugunak ia oinarritzkotzat jo ditzakegu arestian aipatutako asmoa betetze aldera.



Helburua

Hau da prozedura honen helburu nagusia:

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiara lanera datozen langile berriak jabetzea hizkuntza-irizpide batzuen arabera lan egin behar dutela.

Horretaz gain, beste hauek ere baditugu jomugan:

- a) lankide eta arduradunekin lan-harremanak euskaraz eraikitzea baldintzek horretarako bidea ematen duten esparru eta atal guztietan.*
- b) langilearen jarduna euskararen normalizazioaren alde bideratzea.*
- c) Langileak euskaraz duen gaitasuna garatzea praktikaren bitartez.*

Harrerá linguistikoá egiteko erabiliko diren hizkuntzak

Ahal den guztietan harremaná euskaraz izango dá. Hala ere, harreraren momentu bakoitzean parte hartzen duten pertsonak euskaraz hitz egiteko gai ez badira, gaztekeraz hitz egingo dute, baina bereziki nabarmenduko dute normalizazioak PLEAn duen garrantzia, eta aukera dagoen guztietan, euskaraz aritzera gonbidatuko dute langilea, bai ahoz, bai idatziz. Era berean, harrerá linguistikoaren helburuarekin koherentzia mantentze álderá, ezinbestekoá dá harrerá egitean bakarrik ez, aurrerantzean ere euskaraz egitea.

Iraupena eta Balorazioa

Langile berriá PLEAra etortzen denetik hasita, etorri berriari handik hilabeterá HNTek aurrez-aurreko elkarrizketa galdeketa egin eta etorri berriak bete arte.



Harreraren protokoloaren urratsak eta edukiak

- 1.- Harreraren prestaketa-lanak*
- 2.- Etorri berria hartzea*
- 3.- Harrera Zuzendaritzan*
- 4.- Harrera HNTarenean*
- 5.- Harrera zerbitzuan (atalean, arloan,...)*
- 6.- Harrera informatikoa*
- 7.- Harreraren ebaluazioa*

1.- Harreraren prestaketa-lanak. Langileen arduradunak (Josu G.) Akademiako langileei posta-elektroniko baten bitartez langile berriaren etorreraren berri emango die (nor, noiz, nora).

2.- Etorri berria hartzea. Langileen arduradunak (Josu G.) edo horren lantaldeko batek (langileen arloko batek) langile berria hartuko du. Han langile berriarekin egin beharrekoak egingo dituzte (kontratua izenpetu, txartela eskuratu, etab.).

3.- Harrera Zuzendaritzan- Zuzendariak ongi-etorria emango dio PLEAko Plan Estrategikoaren (2018-2022) eta Kudeaketa Planaren berri emanez, gain-gainetik.

4.- Harrera HNTarenean. HNTk harrera egingo dio langile berriari eta Erakundeko Euskara Planaren berri emango dio, honako xehetasun hauetara jotz:

4.1.- Planean jasotako hizkuntza-irizpide garrantzitsuenak aipatuko dizkio.



4.2.- Bere zerbitzuari eta bere lanpostuari dagozkion egitekoen eta atazen hizkuntzaren inguruan, herritarrari zein ikasleari zerbitzua ematerakoan edo beste administrazio edota sektore publikoko erakundeekin harremanak izaterakoan Planean adostutako hizkuntzen erabilera azalduko dio.

4.3.- Lankideek hartutako konpromisoen berri emango zaio eta berari(langile berriari) ere konpromisoak hartzeko eskatuko zaio.

4.4.- Euskaraz lan egiteko baliabideen (Euskalterm, hiztegi terminologikoak)

4.5.- Langileak sortuko dituen euskarazko idatziak zuzentzeko laguntza behar izanez gero, dituen aukeren berri emango dio: Idazlagun zerbitzua, etab.

● Zerbitzuburuak etorri berriari hurrengo hilabetean ondo integratzen dela ziurtatzeko, haren zalantzak argitzeko edota haren lanean laguntza emateko tutore edo trebatzaile bat izendatuko dio (lanean hurbilena izan litekeena; esaterako, bere zerbitzuan edo atalean nagusi dena edo lankide hurbila izango den bat).

5.- Harrera zerbitzuan (atalean, arloan,...). Harrera egingo diote langile berriari bere zerbitzuan (atalean, arloan,...). Haren ataleko, arloko,... buruarekin izango da eta bere lantokira edo zerbitzu tokira eramango du eta bertan honakoak azalduko dizkio:

5.1.- Bere zerbitzuko lankideak aurkeztuko dizkio.

5.2.- Zerbitzuaren antolamendua eta egitekoak xehetasunez azalduko dizkio.



5.3.- Hala eskatzen duten herritarrekiko ahozko eta idatzizko komunikazioak % 100 izango dira euskaraz.

5.4.-Baliabide informatikoak euskaraz instalatuko zaizkiola adieraziko dio.

5.5.-Era berean, etorri berriari aukera emango dio konpromiso berriak hartu, ekintza berriak proposatu eta ekarpenak egiteko.

6.- Harrera informatikoa. Langile etorri berriaren euskara gaitasun maila 3. eta 4. HE' denean, erabili behariko dituen aplikazioen berri emango diote eta aplikazio orokor zein berariazko horiek euskaraz jarriko dizkiote.

7.- Harrearen ebaluazioa. Handik hilabete aldera, HNTk harrera linguistikoaren ebaluazioa egingo dio langile etorri berriari.



=Harrera linguistikoaren ebaluazio-galdetegi=

PLAAn hasi zinenean egin zizuten harrera linguistikoaren inguruan duzun iritzia jaso nahi dugu. Eskerrik asko emango diguzun laguntzagatik.

Izen-abizenak:.....	Zerbitzua:.....
Lanpostua:.....	Zuzendaritza:
Saila/Erakundea:	

1. Saileko Euskara Plan Estrategikoaren eta Zuzendaritzako Euskara Planaren inguruko informazioa jaso duzu? 1.1. Materiala eman dizute?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
2. Hizkuntza-irizpideak azaldu dizkizute? 2.1. Materiala eman dizute?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
3. Argi azaldu dizute zein hizkuntza erabili behar duzun kasu hauetan? 3.1. Herritarrekiko harremanetan 3.2. Barne funtzionamenduari dagozkion harremanetan 3.3. Beste administrazioekiko harremanetan	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
4. Zuzendaritzako Euskara Planaren inguruko informazioa jaso duzu?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
5. Aukera eman dizute zeuk ere konpromiso linguistikoak hartu ditzazun?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
6. Aukera eman dizute zeuk ere ekintzak proposa ditzazun?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
7. Hizkuntza-prestakuntzarako eta trebakuntzarako aukerak azaldu dizkizute?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
8. Hizkuntzari buruzko zalantzak nola, non, norekin argitu ahal dituzun azaldu dizute?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
9. Zein hizkuntzatan dituzu harremanak zure lankideekin?	<input type="checkbox"/> Beti edo ia beti gaztelaniaz <input type="checkbox"/> Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago <input type="checkbox"/> Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste <input type="checkbox"/> Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago <input type="checkbox"/> Beti edo ia beti euskaraz
10. Zein hizkuntzatan dituzu harremanak zure zerbitzuburuarekin?	<input type="checkbox"/> Beti edo ia beti gaztelaniaz <input type="checkbox"/> Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago <input type="checkbox"/> Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste <input type="checkbox"/> Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago <input type="checkbox"/> Beti edo ia beti euskaraz
11. Zein hizkuntzatan dituzu harremanak zure zuzendariarekin?	<input type="checkbox"/> Beti edo ia beti gaztelaniaz <input type="checkbox"/> Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago <input type="checkbox"/> Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste <input type="checkbox"/> Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago <input type="checkbox"/> Beti edo ia beti euskaraz
12. Harrera linguistiko honek eragina izango du zure jokabide linguistikoetan (zure lana euskaraz egiteko, zure lankideekin euskaraz hitz egiteko)?	0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> Harrera linguistikoaren eragina Otik 10era bitarteko eskalan baloratu behar duzu: zero "batere eraginik ez" eta hamar "erabateko eragina" izanik.

Oharrak edota iradokizunak:



